

Irizar Group Milango UITP azokan egongo da autobus % 100 elektrikoarekin

Milan, 2015eko ekainak 8

Irizar lehen aldiz joango da Milango UITP azokara. Ekainaren 8tik 12ra bitartean egingo da eta 300 metro²-ko standa izango du zero igorpeneko hiriko bere modeloa aurkezteko, Irizar i2e. Irizar Taldearen teknologiarekin garatutako kargagunea ere aurkeztuko du. Stand berean ikusi ahal izango dira gidatzeak sortutako ustiapen eta segurtasun arazoei aurre egiteko Datik-ek sortutako irtenbideak, garraiorako ITSak (Intelligent Transport Solutions) garatzen dituen taldeko enpresa.

Irizar i2e hirietako operadoreentzat hiriko etorkizuneko autobus gisa aurkezten da. Azken teknologiak ditu eta erreferente da iraunkortasunean, ekoefizientzian eta errentagarritasunean hiri barruan mugitzeko. Hiri modernoetako garraioaren gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuten die.

Teknologia propioa - Know How europarra Irizar i2e teknologia europar propioarekin garatutako lehen hiri autobusa da. Irizar Taldeko enpresen eta bere Berrikuntza eta Garapenerako Zentro Creatioren arteko elkarlanaren emaitza da. Creatiotik sortu dira autokar integraletarako eta autobus elektrikoetarako azken aurrerapenak.

Irizarren autobus elektriko berriak European garatutako lehen mailako teknologia eskaintzen du, abangoardiako diseinuarekin eta sektorean aitzindari diren teknologiekin, Europako hirietan urtebetez probatutakoa dagoeneko.

Iraunkortasunari buruzko berrikuntza Igorpenik egiten ez duenez eta isila denez Irizar i2e hirientzat eta haietako biztanleentzat garraio egokia da. 318,28 tona CO₂ murrizteaz gain 33.000 litro erregai aurrezten dira eta independentzia ematen du erregai fosilen etengabeko igoeraren aurrean.

Ecodesignen printzipioak barneratuz garatu da, hau da, autobusaren diseinuan ingurumen eta birziklatze irizpideak ezarriz. Bateriak ere % 99 birziklagarriak dira; hartara, iraunkortasuna eta errentagarritasuna nabarmen hobetzen dira.

Autonomia osoa Irizar i2e 250 km arteko autonomia eskaintzeko diseinatu da, gehienez 16 orduz jarraian eta zirkulazio trinkoarekin.



Gailu honek, gainera, kontsumoaren, ibilbidearen eta gidatzearen inguruko informazioa zentralizatzen du.

Gaur egun Donostian eta Bartzelonan martxan dabilten hiru unitateek eta han eta hemen egin diren probek (EMT Madrilan, RTM Marseillan, AMB, Baixbus, Tugsal (Bartzelonako Metropoli-gunea) autonomia maila horiek ziurtatzen dituzte.

Irizar i2e-k errentagarritasunik onena eskaintzen du, bere kontsumo elektrikoagatik, teknologia energetikorik berritzaileenak barneratu baititu 180 kW-eko potentzia nominalarekin, ibilgailuan ontziratutako energia 376 kWh da, eta horrek 250 km-ko autonomia ematen dio, gidaritza zikloaren eta baldintza klimatologikoen arabera.

Autobusaren diseinuan aerodinamikaren kontzeptua sartzeaz gain, pisuen banaketa ere kontuan hartu da, baita osagaien irisgarritasuna ere, mantentze lanak errazteko.

Energia biltegitratzeko sistema Jema Energyk garatu du, eta bateriaren eta superkondentsadoreen arteko erlazioa kudeatzen du, bi osagaien kargaren egoera tarte ezin hobean mantentzeko eta, ondorioz, osagaien bizitza zikloa luzatuz, kostu operazionala hobetzeko.

Gainera Irizar i2e-k Irizarren garantia du.

Ziurra, fidagarria eta eroso Irizar Taldearen autobus elektrikoa segurtasun aktiboaren zein pasiboaren eskakizunik zorrotzenak betetzeko diseinatu da. Iraultzearen kontrako R 66.1 araudia betetzen duen merkaturako lehen autobus elektrikoa da.

Torlojuz lotutako aluminiozko egitura da beste berrikuntza bat. Modulatzeko ezinhobea izateaz gain, pisua gutxitzea dakar eta grabitate-zentro baxuagoa da. Bere egitura sendoaren zurruntasuna eta sendotasuna alboko zein aurrez aurreko txoke egoerak nahiz alde batera iraultzea bermearekin jasateko pentsatuta dago.

Softwarea ISO 26262 gomendioak jarraituz garatu da segurtasun funtzionalari dagokionez. Irist ez egiteko kontrola du eta energia jarioak eta muturrak modu eraginkorrean kudeatu eta identifikatzeko gai den biltegitratzen sistema. Irizar i2e, Irizar markako gainerako autokarrak eta autobusak bezala, parametro zorrotzenen arabera sortua da eta autobus bereziki sendo eta fidagarria. Neke azeleratuko eta fidagarritasuneko saiakuntza gogorak egin zaizkio, automoziora aplikatutako ikerketa instituturik ospetsuenetako batean, eta emaitzak bikainak izan dira.

Irizar i2e Irizarren gainerako modeloen konfort termiko maila mantentzeko gai da, berogailu eta klimatizazio ekipoa baititu autonomia handiagoa lortzeko Diseinuan, materialetan, osagaietan eta produkzio prozesuetan teknologiarik aurreratuenak sartzeaz gain, autobusak kalitate goreneko akaberak dauzka. I2e autobus seguru eta fidagarri bihurtzen du horrek.



ZeEUS proiektua

Irizar ZeEUS (Zero Emission Urban Bus System) proiektuan parte hartzen ari da; ingelesezko sigla horien esanahia "Zero Emisioko Hiri Autobusen Sistema" da, eta xedea da Europako hiri nagusietan autobus elektrikoak ezartzea.

Proiektu berritzailea da, helburutzat ahalmen handiko ibilgailuak garatzea duena, baita horiek kargatzeko azpiegitura egokiak sortzea ere, Europako hiri autobusen sare gehienetan soluzio guztiz elektrikoa ezartzeko.

Elektrizitatea errepide bidezko garraiorako erregai alternatibo moduan erabiltzeak kutsadura atmosferikoa, berotegi efektuko gasen igorpena eta kutsadura akustikoa murrizten laguntzen du.

Proiektua Europar Batzordek kofinantzatzen du (Mugikortasun eta garraio Zuzendaritza Nagusia), eta liderra Garraio Publikoaren Nazioarteko Batasuna da (UITP), zeinak 40 bazkide koordinatzen dituen, horien artean Irizar, mugikortasunean inplikaturik dauden aldeen kategoriaz guztiak ordezkatuz.

Proiektuaren iraupena 42 hilabete da, eta arretagunea autobus elektrikoen bideragarritasun ekonomikoa, operazionala, ingurumenekoa eta soziala frogatzea izango da, hiri inguruneetako mugikortasunari buruzko benetako alternatiba moduan, soluzio teknologiko berritzaileetan oinarrituta, Europa zortzi hiritan: Bartzelona, Londres, Paris, Varsovia, Harleem, Stockholm, Münster, Pilsen, Bonn eta Cagliari, ingurune klimatiko eta orografiko ezberdineko hiriak. Donostia da programa horren behaketarako hiria.

Ekimena oso garrantzitsua da Irizarrentzat, Europan lantzen ari diren programarik garrantzitsuenetakoa izateaz gain, erakusleho bikaina izango delako taldearen teknologia ezagutarazteko, eta horrek gainera aukera emango dio produktua lanean ebaluatzeke eta errendimendua hobetzeko.

Azken ordua

Une honetan 8 autobus fabrikatzeko prozesuan gaude, haietako 2 Londreseko eta gainerako 6ak Frantziako Marseillarako.

Urrats horrekin Irizarrek erakutsi du ez bakarrik herrialde horietako merkatu, operadore eta araudietara egokitzeko gaitasun oso duela, baina, gainera, hiri mugikortasunean lider gisa posizionatzeko asmoa agertu du.



Proiektu berriak Elektromugikortasuna Taldearen etorkizunerako apustua Garraio seguru eta jasangarriak

Irizarrek hirietako elektromugikortasunaren merkatuan lider izateko erabakimena du eta kontzeptu horiekin lotutako teknologia berrietan abangoardian posizionatzekoa. Bide horretan garraio garbiak eta irisgarriak erabiltzea sustatuko du, ingurumenaren, ongizatearen eta pertsonen osasunaren alde egingo dutenak eta hirigune hobeak sortuko dituztenak. Kutsadura akustikoa murriztearen alde egiten du, kostuak gutxituko dituzten kontsumo baxuen alde eta zero igorpeneko ibilgailuen alde. Hau da Irizar Taldearen lerro estrategiko berria.

Dagoeneko errealitate bihurtutako hiri autobus honez gain Taldea produktu berriak sortzeko proiektu berri eta anbiziotsuetan murgilduta dago, eta baita jarduera berri honetarako lantegi berri bat eraikitzeko lanetan ere.

Martxan dauden proiektuek hirietako elektromugikortasun beharrak osatuko lituzkete, eta baita haien osagai eta sistema nagusiak ere: Ibilgailuak, karga sistemak, energia biltegitratzeko sistemak eta abar.



ERAGIKETA DATUAK

Dbusi Donostian entregatutako lehen ibilgailua

2014ko uztailaren 23tik zerbitzua ematen Donostian

-
- Egindako kilometroak: 20.000 baino gehiago
- Egunean ibiltzen den orduak 14h eta 16h artean

TMBri Bartzelona hirian entregatutako bigarren eta hirugarren ibilgailuak

Abuztuaren 18tik zerbitzua ematen Bartzelona hirian

- 20. Linean dabil
- Egindako kilometroak: 25.000 kilometro baino gehiago bien artean
- Egunean ibiltzen den orduak 16h gutxi gorabehera

Madrileko EMTn egindako probak- azaroan (astebetez)

- Carabancheleko EMTren egoitza nagusian ibili zen
- Ibilbidea: 880 m tartean lau geldialdirekin ateak ireki eta itxiz
- Pareko emaitza 180 km
- Egunean ibiltzen den orduak 14 h

Marseillan egindako probak- 2014ko azaroaren 24tik 2015eko urtarrilaren 22ra

- 83. Linean dabil
- Egindako kilometroak: 4000 km
- Egunean ibiltzen den orduak 12 eta 14 h artean

AMBn (Bartzelonako metropoli-gunea) egindako probak - martxoaren 10etik 22ra

Baixbus operadorea

- L46, L52, L96 lineatan dabil
- Egindako kilometroak: 205 km
- Egunean ibiltzen den orduak 12 h

Tugsal operadorea- martxoaren 25etik apirilaren 8ra

- L31, L11, L26 lineatan dabil
- Egindako kilometroak: 147 km
- Egunean ibiltzen den orduak 11 h 25